

BALIO ETIKOAK ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Irantzu Osinaga Larraza	Maila	DBH 2. Maila	Ikasturtea	2020-2021
-----------	-------------------------	-------	--------------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez ditu ezberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko ikastetxeko [Arreta ez-Prezentzialaren Plana](#).

Ikasgaiaren helburu nagusia bigarren mailan, ikasleek haien buruaren, bizi proiektuaren, emozioen, balioen eta gizartearen inguruan gogoeta kritikoa egiteko eta arazoak konpontzeko gaitasunak bereganatzen jarraitzea da, hurrengo kurtsoetan aurkeztuko zaizkien erronkei aurre egiteko ezinbesteko bitartekoak bereganatzen jarrai dezaten. **Balio etikoak** ikasgaia astean **bi orduz** landuko dugu.

Ikasgaiaren **gai nagusiak** 2.DBHn hauexek izango dira: **adimen emozionala, elkarbizitza, askatasuna eta erantzukizuna, hezkidetzak, eta bizitza demokratikoaren oinarriak.**

Ikasleak gaitasun pertsonalak eta sozialak bereganatzen dituen heinean, hurrengo urteetan aurkeztuko zaizkien erronkei aurre egiteko ezinbesteko bitartekoak praktikara eramateko moduan egongo delakoan gaude.

Kurtsoan zehar hainbat proiektu desberdin landuko ditugu: **Eskola Solidarioak** Sareko hainbat proiektu ("Ikusi Makusi" estereotipo eta aurre-iritziei buruzkoa, eta "Zapalduaren anzterkia" psikodrama) eta **Bakea eta Bizikidetzak** Programako tailer bat (jolas kooperatiboak eta gatazken irtenbide positiboak).

Edozein gauzatarako harremanetan jartzeko posta elektronikoa hauxe da: iosinaglar@educacion.navarra.es

OINARRIZKO GAITASUNAK

GAI-MULTZOAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3						
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1	2	3						
3) Gaitasun digitala.	1	2	3						
4) Ikasten ikastea	1	2	3						
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3						
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2	3						
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3						

HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

"Balio Etikoak" ikasgaiaren helburu nagusia **ikasleak bere balioak iritzi zorrotz, koherente eta**

arrazionalen bidez oinarritzeko bitartekoak sortzea da, hartuko dituen erabakiak egokiak izan daitezen eta bere jokabidea, bizitza pertsonala eta harreman sozialak gida ditzaten.

Ikasgaiaren helburu orokorren inguruko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi: Mintegiko programazio didaktikoa eta Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2015eko uztailaren 2a, osteguna, 127. zenbakia.

EDUKIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

(ikasgai bakoitzari dagokion curriculumaren zatia estekan)

1.multzoa: NIRE NORTASUNAREN BILA eta PERTSONA GISA HAZTEA gaiekin lotutako unitate didaktikoak.

2.multzoa: MORALETIK ETIKARA eta DEMOKRAZIA BIZIMODU GISA gaiekin lotutako unitate didaktikoak.

3.multzoa: GIZA ESKUBIDEAK eta ZIENTZIAREN ERRONKAK gaiekin lotutako unitate didaktikoak.

Ikastetxeak elkartasunarekin duen konpromisoari jarraituz (*Eskola Solidarioen* sareko kideak baikara). Hortaz gain, baliteke, gatazken irtenbide positiboa lantzea *Zapalduaren Antzerkiaren* bitartez, Eskola Solidarioen programaren baitan.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
22ggb	1.multzoa	22ggb	2.multzoa	22ggb	3.multzoa

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Testu liburua: Vicens Vives argitaletxeko "Balio etikoak-2.DBH" liburua erabiliko dugu.

ISBN: 978-84-682-5056-4.

Metodologiari dagokionez, klasean azalpen teorikoak, taldeka zein bakarkako ariketak, eztabaidak, filmak-proiektzioak eta ahozko aurkezpenak tartekatuko dira. IK/KI arabera taldekatuko dira (4naka) eta IK/KI egiturak erabiliko dira.

Baliabideak: Zenbait pelikula/dokumental/bideo ikusiko ditugu. Prentsa idatzia, liburuak, entziklopediak nahiz interneta erabiliko ditugu.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

* Ebaluazio bakoitzeko notaren osaketa:

1. Froga idatzia (azterketa): notaren %40 puntu.
2. Ebaluazioan jasotako lanak (bakarkako lanak, talde-lanak, ahozko aurkezpenak...): notaren %40 puntu. Ebaluazioko lanak (taldekakoak zein bakarkakoak) derrigorrez

aurkeztu behar dira.

3. Lan ohiturak, jarrera eta portaera: notaren %20

- a. Klaseko lana eta jarrera (lanarekiko jarrera arduratsua eta inplikazioa proposatzen diren ariketetan eta jardueretan): notaren %10
- b. Etxeko lanak egitea: notaren %10 (*)

(*) Ebaluazio batean etxeko lanik egongo ez balitz, "etxeko lana" atalak notan izaten duen pisua (%10) "klaseko lana eta jarrera" izeneko atalari gehituko zaio, eta azken honek %10a balio beharrean, %20 balioko du.

Ekaineko nota finala gainditutzat emango da 3 ebaluazioetako noten batz bestekoa 5 batera iristen bada, beti ere 2 ebaluazio gutxienez gainditu baldin badira (2 ebaluazio suspenditu eta berreskuratu ez baldin badira, ez da batz bestekoa egingo).

OHAR GARRANTZITSUAK:

- Elkarrekiko errespetua eta klaseko parte hartze egokia ezinbestekoak izanen dira ikasgaia gainditzeko (gaitasun sozialari dagokiona). Atal hau bete ezean, ebaluazioa edota ikasgai osoa suspenditu daiteke.
- Epez kanpo aurkeztutako lanek asko jota 5 bat jasoko dute notan. Irakasleak zehaztuko du noiz arte aurkeztu daitezkeen berandu emandako lanak (**derrigorrez aurkeztu behar baitira**).
- Froga idatzian 4 batera iristea ezinbestekoa izanen da bakarkako zein talde-lanekin batera batz besteko nota kalkulatu ahal izateko.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

1. Eduki teorikoak, frogetan/lanetan/ariketetan, zuzenak eta gramatikalki ondo adierazita egotea.
2. Informazio iturri ezberdinak erabiltzen ikasten hastea modu zuzen eta autonomoan.
3. Landutako eduki teorikoak sintetizatzen jakiten hastea.
4. Landutako eduki teorikoak analizatzen jakiten hastea.
5. Landutako kontzeptu teorikoak partekatzen jakiten hastea.
6. Sortze-lana egiten ikasten hastea, norberaren ideiak eta ikasitakoa uztartuz hausnarketa pertsonalaren bitartez.
7. Gai baten inguruan argudiatutako iritzia ematen ikasten hastea eta, aldi berean, besteen iritzia begirunez entzuten eta ulertzen ikasten hastea.
8. Ebaluazio bakoitza gainditzeko eta ekainean ikasgaia gainditzeko, beharrezkoa izanen da irakasleak agintzen dituen lanak, gogoeta pertsonalak, galdetegiak etab. aurkeztuak izatea eta eginen diren froga idatzietan 4 bat lortzea.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

* EBALUAZIOETAKO ERREKUPERAZIOAK

Errekuperazioa derrigorrezkoa da ebaluazioa suspendituz gero. Errekuperazioa ebaluazioa

pasa eta gero egingen da. 3. ebaluazioa suspendituz gero, errekupeazioa Nahikotasun probetan egingen da.

*** NAHIKOTASUN PROBA**

- **1. edota 2. ebaluazioetako errekupeazioak suspendituz gero**, Nahikotasun probetara jo beharko du ikasleak.
- **3. ebaluazioa suspendituz gero**, errekupeazioa Nahikotasun probetan egingen da. **3. ebaluazioko errekupeazioa suspendituz gero** (Nahikotasun proban), ekaineko Ez Ohiko Deialdian berreskuratuko da.

*** EZ OHIKO DEIALDIA**

Ekaineko Ez Ohiko Deialdian, errekupeazioetan edota Nahikotasun proban suspenditutako ebaluazioak ebaluatuko dira. Kasu guztietan, ikasleak gaizki egin dituen edota bete ez dituen lanak/frogak/ariketak egin beharko ditu, gainditu gabe duen/dituen ebaluazio edota unitate didaktikoekin lotuta beti.

Ez Ohiko Deialdiko nota: gainditutako ebaluazioetako noten batz bestekoa izango da.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ez da egingen.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.